

Jurdana Uriarte Lejarraga Bermeoko Udaleko IDAZKARI NAGUSIAREN
9/2020 TXOSTENA

Espediente tramitatzaila: Urigintza, Obra eta Ingurumen saila

Gaia: Udaletxea barrizatzeko obren kontratua (3. fasea) aldatzea

Espediente zenbakia: KON_IS_0016 (2018)

Txostenaren oinarria: Toki Erakundeen Izaera Nazionaleko Gaikuntzadun Funtzionarioen Araubide Juridikoa onartzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 3.3.h artikulua eta azaroaren 8ko 9/2017 Sektorre Publikoko Kontratuen Legearen 3.8 Xedapen Gehigarria

Ikuskatutakoa	Bete da	Oharrak
<p>Espedientean:</p> <p>Kontratua indarrean dago</p> <p>Aldaketaren interes publikoa justifikatu da eta aldeko proposamen tekniko dago</p> <p>Aldaketa ez da pleguetan aurreikusi:</p> <p style="padding-left: 20px;">Justifikatutako arrazoia lege ezarrita dago</p> <p style="padding-left: 20px;">Ezinbestekoan bakarrik proposatzen da aldaketa</p> <p style="padding-left: 20px;">Derrigorrezkoak dira(%20ra arte) /kontratatzen idatzizko oniritzia dago (%20 baino gehiagoetan)</p> <p>Prozedura jarraitu da</p> <p>Proposamenean:</p> <p>Organo eskumenduna zuzena da</p> <p>Formalizatu behar da</p> <p>Kontratugilearen profilean argitaratuko da (207.4)</p>	<p>Ez</p> <p>Ez</p> <p>Ez</p> <p>Ez</p> <p>Bai</p> <p>Ez</p> <p>Bai</p> <p>Bai</p>	<p>2020/01/21ean bukatuta</p> <p>Interes publikoa justifikatu behar da eta Udal arkitektoaren txostena komeni da</p> <p>Ez da SPKLaren 205.artikulua behar bezala justifikatu</p> <p>Ez da justifikatu</p> <p>Ez da prozedura jarraitu</p> <p>TGBa da. Ez da premia justifikatu</p>
Ondorioa	Oharrak	
X Kontrako txostena	<ul style="list-style-type: none"> - Kontratuaren epea amaituta dago. - Justifikatu behar da interes publikoa eta 205.artikulan 	



	<p>gaudela aldaketa egiteko. (Arkitektoaren txostenean ez baita justifikatzen SPKLaren 205.2 kasuan gaudela). Ez da ezinbestekotasuna justifikatzen.</p> <ul style="list-style-type: none">- Ez da legez ezarritako prozedura jarraitu, aldaketak exekutatuta baitaude.- Kontratazio organoa Tokiko Gobernu Batzarra da.- Udal arkitektoaren txostena komenigarri ikusten da obraren zuzendariarekin bat badator edo ez argitzeko. <p><i>Txosten hau Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 203-207 eta 335.2 artikuluetan zehaztutakoa kontuan hartuz egin da (obretan 242 eta hurrengoak).</i></p>
--	--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------

Hori da nire ustea, zuzenbidean oinarritutako bestelako irizpideen kalterik gabe.
Hori horrela, kontratazio organoak egoki deritzona erabakiko du.

Orrri oinean sinatzailea eta data



Sektore Publiko Kontratuaren azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 203. artikulua. Kontratua aldatzeko ahala.

Kontratistaren ondorengotzari, kontratua lagatzeari, prezioak berrikusteari eta kontratua egikaritzeko epea luzatzeari buruz lege honetan aurreikusitako kasuak alde batera utzi gabe, administrazio-kontratuak soilik interes publikoko arrazoiengatik aldatu ahalko dira, eta azpiala honetan aurreikusitako moduan, 191. artikuluan araututako prozedurari Kontratazio-organoek egindako administrazio-kontratuak, indarrean daudenean, honako kasu hauetako bat gertatzen denean aldatu ahalko dira soilik:

a) Administrazio-klausula partikularren agirian hala aurreikusi denean, 204. artikuluan ezarritako modu eta baldintzetan; b) Aparteko kasuetan, administrazio klausula partikularren agirian aurreikusita ez dagoen aldaketa bat egin behar denean, beti ere 205. artikulua ezartzen dituen baldintzak betetzen direnean. Beste edozein kasutan, baldin eta beharrezkoa bada itundutakoaz beste modu batean egikaritzea indarrean den kontratua, kontratua suntsiaraziko da eta beste bat egingo da kasuan kasuko baldintzekin, eta, beharrezkoa bada, lizitazio publiko berri baterako deialdia egin eta gauzatuko da aurrez, lege honetan ezarritakoari jarraituz, eta alde batera utzi gabe segurtasun-arrazoiengatik, zerbitzu publikoaren arrazoiengatik edo hondamen arriskuagatik beharrezkoak diren neurriak hartzeko kontratistak duen betebeharrari dagokionez 213. artikuluan 6. apartatuan xedatutakoa. 3. Kontratu-aldaketak 153. artikuluan xedatutakoaren arabera formalizatu beharko dira, eta 207. eta 63. artikuluetan ezarritakoari jarraituz argitaratu beharko dira.

205. artikulua. Administrazio-klausula partikularren agirian aurreikusi gabeko aldaketak: prestazio gehigarriak, ustekabeko inguruabarrak eta funtsezkoak ez diren aldaketak.

Administrazio-klausula partikularren agirian aurreikusi gabeko aldaketak, edo aurreikusitakoak izanik ere aurreko artikuluan ezarritakoari egokitzen ez zaizkionak, honako baldintza hauek betetzen dituztenean egin ahalko dira soilik:

- a) Justifikazioa izatea artikulua honen bigarren apartatuan zerrendatzen diren kasuetako batean.*
- b) .Mugatuta egotea bera beharrezko egiten duen kausa objektiboari erantzuteko zorrozkiz ezinbestekoak diren aldaketak sartzea. Aurreikusi gabeko aldaketa bat justifikatzen kasuak, baldin eta artikulua honen lehen apartatuan jasotako baldintza guztiak betetzen badira, honako hauek dira:*
 - a) Beharrezko gertatu denean hasiera batean kontratatutakoei obra, hornidura edo zerbitzu gehigarriak gehitzea, betiere honako bi baldintza hauek beteta:*



1.a Kontratatuz aldatzea ezinezkoa izatea arrazoi ekonomiko edo teknikoengatik; esate baterako, kontratazio-organoa behartuta egotea hasieran kontratatutakoek dituzten ezaugarri teknikoek bestelakoak dituzten obra, zerbitzu edo hornidura batzuk eskuratzera, eta diferentzia horiek erabileran edo mantentzean neurritz kanpoko bateraezintasunak edo zailtasun teknikoak sortzea; eta, halaber, kontratatuz aldatzeak kontratazio-organoari eragozpen handiak edo kostuen igoera nabarmena ekartzea.

Inolaz ere ez da eragozpen handitzat hartuko kontratatuz aldatzeko beste lizitazio bat egin behar izatea.

2.a Kontratuaren aldaketak kontratuaren diru-zenbatekoan dakarren aldaketak ez gainditzea, kontratuaren aldaketa horrekin bakarrik edo artikulua honen arabera adostutako beste aldaketa batzuekin batera, hasierako prezioaren ehuneko 50 BEZik gabe.

b) Lizitazioaren unean aurreikusi ezin zitezkeen eta gerora sortu diren gorabeheretatik etorri denean indarrean dagoen kontratu bat aldatzeko beharra; betiere, honako baldintza hauek bete beharko dira:

1.a Administrazio arduratsu batek aurreikusi ezingo zituen inguruabar batzuetatik etortzea aldaketaren beharra.

2.a Aldaketak kontratuaren izaera orokorra ez aldaraztea.

3.a Kontratuaren aldaketak kontratuaren diru-zenbatekoan dakarren aldaketak ez gainditzea, kontratuaren aldaketa horrekin bakarrik edo artikulua honen arabera adostutako beste aldaketa batzuekin batera, hasierako prezioaren ehuneko 50 BEZik gabe.

c) Aldaketak funtsezkoak ez izatea. Kasu horretan, berariaz justifikatu beharko da haien beharra, adieraziz zer arrazoi dauden prestazio horiek hasierako kontratuan ez sartzeko. Kontratuaren aldaketak funtsezkotzat jotzeko, haien emaitzak hasiera batean egindako kontratuaz bestelakoa den kontratu bat izan behar du benetan. Nolanahi ere, aldaketak honako inguruabar hauetako bat edo batzuk betetzen dituztenean joko dira funtsezkotzat:

1.a Aldaketak ezartzen dituen baldintzak hasierako kontratazio-prozeduran jasota egon balira aukera eduki izana hasieran hautatutako hautagaiez beste batzuk hautatzeko, hasieran onartutakoaz beste eskaintza bat onartzeko edo kontratazio-prozedurarako parte-hartzaile gehiago erakartzeko. Nolanahi ere, aurreko paragrafoan aurreikusitako kasutzat hartuko da kontratatuz beste sailkapen bat eskatzea –eta ez jatorrizko lizitazio-prozeduran eskatu



zitzaiona– hala eskatzen duelako jatorrizko proiektutik edo baldintza-agiritik ateratzen diren obrai edo zerbitzuei egin nahi den aldaketa gehitzeak.

2.a Aldaketak hasierako kontratuan aurreikusi gabeko modu batean aldaraztea kontratuaren oreka ekonomikoa kontratistaren mesedetan. Nolanahi ere, aurreko paragrafoan aurreikusitako kasutat hartuko da egin nahi den aldaketaren ondorioz obra-unitate berriak sartzea eta horien zenbatekoa kontratuaren hasierako aurrekontuaren ehuneko 50etik gorakoa izatea.

3.a Aldaketak modu nabarmenean zabaltzea kontratuaren eremua.

Nolanahi ere, honako hauek betetzen direnean iritziko zaio aurreko paragrafoan aurreikusitako kasua gertatzen dela: (i) Aldaketaren balioak, isolaturik nahiz osotara, hasierako prezioaren ehuneko 15etik gora aldaraztea kontratuaren zenbatekoa, BEZik gabe, obra-kontratuaren kasuan; edo ehuneko 10etik gora, BEZik gabe, gainerako kontratuaren kasuan; edo, bestela, 20. artikulutik 23. artikulura aipatutako atalasetatik kontratu mota dela-eta aplikatzekoa dena gainditzea. (ii) Aldatu behar diren obrak, zerbitzuak edo hornidurak gaur egungo zein etorkizuneko beste kontratu baten eremuan egotea, eta, betiere, kontratazio-espeditentearen izapidetzea hasita egotea.

206. artikulua. Kontratu-aldaketen nahitaezkotasuna.

1. 205. artikuluan jasotako kontratu-aldaketen kasuetan, kontratazio-organoak erabakitako aldaketak nahitaezkoak izango dira kontratistentzat, berekin dakartenean, bakarka edo osotara, kontratuaren hasierako prezioaren zenbatekoa ehuneko 20 edo hortik behera aldaraztea, BEZik gabe.

2. Aurreko apartatuan xedatutakoaren arabera aldaketa nahitaezkoa ez denean kontratistarentzat, kontratazio-organoak aldaketa hori egitea erabakitzeko, idatzizko adostasuna adierazi behar du kontratistak aurrez; bestela, kontratua suntsiarazi egingo da, 211. artikulua 1. apartatuaren g) letran ezarritakoari jarraituz.

207. artikulua. Prozedurako berezitasunak.

2. Kontratua 205. artikuluari jarraituz aldatu aurretik, entzun egin beharko zaio proiektua edo zehaztapan teknikoak idatzi dituenari, baldin eta kontratazio-organokoa ez den hirugarren batek idatzi baditu, zerbitzu kontratu baten ondorioz. Hala, hiru eguneko edo gehiagoko epean, egokitzen jotzen dituen oharra egin ahalko ditu.

3. Erregulazio harmonizatuko kontratu bat aldatzen duten kontratazio-organoek –IV. eranskinean zerrendatutako zerbitzuen kontratu eta zerbitzu horien emakiden kontratuaren kasuetan izan ezik–, 205. artikulua 2. apartatuaren a) eta b) letretan aurreikusitako kasuetan, Europar



Batasunaren Aldizkari Ofizial ean argitaratu beharko dute aldaketari buruzko iragarkia, lege honetan ezarritakoari jarraituz.

*Halaber, indarrean dagoen bitartean kontratua aldatu duten kontratazio-organoek, alde batera utzita kontratu hori erregulazio harmonizatukoa den ala ez eta zein den **aldaketa justifikatzen duen arrazoia, argitaratu egin beharko dute, nolahi ere, aldaketari buruzko iragarki bat kontratazio-organoaren kontratatzailearen profilean hura onesten denetik 5 eguneko epean; eta, horrekin batera, kontratistaren alegazioak eta onetsi aurretik bildutako txosten guztiak ere aurkeztu beharko dira, horren barnean direla adjudikaziodunak aurkeztutakoak edo kontratazio-organoak berak emandakoak.***

4. 191. Artikulu honetan xedatutakoak ez du ezertan eragozten 191. artikuluan ezarritakoa.

242. artikulua.

Obra-kontratua aldatzea.

1. Lege honen 206. artikuluan ezarritakoaren arabera erabakitzen diren obra-kontratuaren aldaketak nahitaezkoak izango dira kontratistarentzat.

Aldaketaren eraginez obra-unitateak ezabatzen edo murrizten badira, kontratistak ez du batere kalte-ordainik eskatzeko eskubiderik izango.

2. Baldin eta, obra-kontratuaren aldaketak direla eta, proiektuan aurreikusita ez zeuden obra-unitateak sartu behar badira edo horien ezaugarriak proiektuan ezarritakoak ez bezalakoak badira, eta beste lizitazio bat egin beharrik ez badago, Administrazioak finkatuko ditu aplikatu beharreko prezioak, kontratistari gutxienez hiru egun baliodunez entzun ondoren.

Kontratistak finkatu diren prezioak onartzen ez dituenean, kontratazio-organoak beste enpresaburu batekin kontratatu ahalko ditu aldaketok, finkatutako prezio horietan, edo zuzenean egikaritu ahalko ditu, edo kontratua suntsiarazi ahalko du, lege honen 211. artikuluari jarraituz.

3. Aldaketak geroan behin betiko ezkutaturik geratuko diren obra-unitateak hartzen dituenean, haien neurketa partziala egin baino lehen, dagokion administrazioaren

Kontu-hartzaitzari eman beharko zaio horren berri, gutxienez ere bost egun lehenagotik, egokitzen jotzen badu neurketa horretara joan dadin inbertsioa materialki egiaztatzeko bere eginkizunak betetzera; hori, halere, ez da eragozpena izango obrak amaituta haien harrera egiteko 243. artikulua 1. apartatuan xedatutakoari jarraituz –210. artikulua 2. apartatuarekin lotuta dago hori–.

4. Obra-zuzendari fakultatiboak, proiektua aldatu beharra ikusten badu eta horretarako lege honetan araututako baldintzak betetzen badira, baimena eskatuko dio kontratazio-organoari, dagokion

6
espedientea hasteko. Espedientea honela gauzatu da:

Agiri hau benetakoa dela udalaren egoitza elektronikoki argitaratu eta dozu.

Kodea:
07E400039F4500M4C9U7O7Q9Q1

Sinadurea eta data

ALDIZKARI NAGUSIA - 03/02/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 03/02/2020
14:53:47

EXPEDIENTE ::
2018KON_IS_0016

Data: 26/10/2018

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



a) Proiektuaren aldaketa idatziz eta onespen teknikoa emanez.

b) Kontratistari eta proiektuaren idazleari entzunez, gutxienez hiru egunez.

c) Kontratazio-organoak espedientea eta beharrezko gastu osagarriak onetsiz.

Hala eta guztiz ere, honako hauek ez dira aldatetzat joko:

i. Neurketak gehiegizkoak izatea, halakotzat ulerturik obra behar bezala egiten den bitartean egiazki gauzatutako unitateen kopuruaren eta proiektuaren neurketetan aurreikusitako kopuruaren artean izaten den aldea soilik, betiere orokorrean ez dutenean egiten hasierako kontratuko prezioaren ehuneko 10etik gorako gastu-igoera.

Neurriak gehiegizkoak izate hori obra-amaierako ziurtagirian jaso beharko da.

ii. Prezio berriak sartzea, lege honetan eta berau garatzeko arauetan ezarritako prozeduren bidez kontraesanaz finkatutakoak, baldin eta prezio berri horiek kontratuaren prezio orokorraren igoerarik ez badakarte eta obra-unitateetan hasierako aurrekontua guztira ehuneko 3 gainditu gabe eraginik ez badute.

5. Baldin eta obra-kontratu aldatzeko izapidea dela-eta obrak osorik aldi baterako bertan behera utzi behar badira, eta horrek interes publikoari kalte larriak eragiten badizkio, eta obrak agindu dituen Estatuko Administrazio Orokorra, haren organismo autonomoak, Gizarte Segurantzako entitate kudeatzailearen bat edo zerbitzu erkideak direnean, edo Estatuko sektore publikoa osatzen duten gainerako erakunde publikoak direnean, halakoetan, ministroak aukera izango du obrek behin-behinean aurrera jarrai dezatela agintzeko zuzendaritza teknikoak egindako proposamen teknikoan ezarritakoaren arabera, baldin eta aurreikusitako gehieneko zenbatekoa kontratuaren hasierako prezioaren 100eko 20tik gorakoa ez bada BEZik gabe, eta kreditu egoki eta nahikoa badago obra finantzatzeko.

Kasu horretan izapidetu beharreko behin-behineko jarraipen-espedientean, honako hauek baino ez dira sartu beharko:

a) Obra-zuzendari fakultatiboaren proposamen tekniko arrazoitua; bertan, hauek jasoko dira: aldatetaren gutxi gorabeherako zenbatekoa, egin beharreko obren oinarritzko deskribapena, eta aldaketa 203. artikulua 2. apartatuan aurreikusitako kasuetako baten arabera izateari buruzko justifikazioa.

b) Kontratistari entzunaldia ematea.

c) Kontratazio-organoaren adostasuna.

d) Kreditua badagoela egiaztatzeko ziurtagiria.

e) Proiektuak Gainbegiratzeko Bulegoaren txostena, baldin eta proposamen tekniko arrazoituan



prezio berriak sartzen badira.

Txostenean arrazoitu beharko da prezio berriak nola egokitzen zaizkien merkatuko prezio orokorreari, 102. artikulua 3. apartatua ezarritakoari jarraituz.

Behin-behineko baimena emateko erabakia hartzen denetik sei hilabetera, teknikoki onartua behar du proiektuak, eta, zortzi hilabetera, kontratuaren aldaketari buruzko espedienteak.

Zortzi hilabeteko epe horren barruan, aurreikusitako obra-unitateen artean, gerora behin betiko ezkutuan geratuko ez diren zatiak gauzatzeari emango zaio lehentasuna.

Behin-behinean obrak hasteko ministroaren baimenak, zeina ministerio-sailaren estatu-idazkariei bakarrik eskuordetu ahalko baitzaie –hala egin behar izanez gero–, berekin ekarriko du Estatuko Administrazio Orokorraren eremuan gastua onestea; hori, halere, ez da eragozpena izango kontratuaren aldaketa onesteko unean egin beharreko doikuntzak egiteko.

Zortzi hilabeteko epearen barruan egindako obrak direla-eta, ziurtagiria emango da, eta lege honetan aurreikusitako eran ordainduko dira, honako berezitasun honekin:

Espediente aldatuaren izapidetzean zehar egin beharreko ziurtagiriek, hasierako proiektuan aurreikusi gabeko unitateak dituztenek, erreferentziatzen hartuko dituzte proposamen tekniko arrazoituan ageri diren prezioak; haien ordainketak kontura egindako behin-behineko ordainketak izango dira, eta proiektu aldatua onetsi ondoren egin daitezkeen zuzenketen eta aldaketen menpe egongo dira; hori guztia, halere, ez da eragozpena izango amaierako neurketan gertatzen diren zuzenketetarako eta aldaketarako, eta ez dute inolaz ere berekin ekarriko biltzen dituzten obrak onestea eta hartzea.

255. artikulua. Proiektua aldatzea

Kontratu burututakoan, kontratazio-organoak lege honen bigarren liburuaren I. tituluaren I. kapituluaren 3. atalaren 4. azpitalean eta 261. artikulua 1. apartatuaren b) letran xedatutakoaren arabera baino ezingo ditu sartu aldaketak.

Emakidaren ekonomia- eta finantza-planak beti jaso beharko ditu, horretarako egin beharreko doikuntzak eginda, kostuak handitzeak edo murrizteak dakartzan ondoreak.

262. artikulua

1. Kontratazio-organoak erabaki ahalko du, interes publikoak hala eskatzen duenean eta lege honetan aurreikusitako inguruabarrak gertatzen direnean, obrak aldatzea, bai eta haiek zabaltzea ere. Beharrezkoa bada, plan ekonomiko-finantzarioa berrikusteari ekingo zaio, inguruabar berrietara egokitze aldera.



2. Emakidaren oreka ekonomikoan eragina duen edozein aldaketa egiteko, aldaketarako arau orokorrei eta lege honetako 270. artikuluan ezarritakoari jarraituko zaio.



Agiri hau benetako dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E400039F4500M4C9U7O7Q9Q1

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAIZKARI NAGUSIA - 03/02/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 03/02/2020
14:53:47

EXPEDIENTE ::
2018KON_IS_0016
Data: 26/10/2018
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

